

EUSKADI IRRATIKO ISTORIO LABURREN 1. LEHIAKETA

Euskadi irratiko Amarauna saioak istorio laburren 1. lehiaketa antolatu du. Hona hemen lehiaketan parte hartzeko bete beharreko oinarriak:

1. Deialdi honetara idatzizko kontakizun laburrak aurkez daitezke, euskaraz, bakarka eta originalak, inon argitaratu gabeak eta inongo literatur lehiaketatan saririk eskuratu gabeak. Parte-hartzaileak konpromisoa hartuko du adimen artifizialeko tresnen bidez sortutako testurik ez bidaltzeko. Baldintza hauetakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da egilea, horretarako epaimahaiak eta Euskadi irratia berariazko erabakia hartu eta gero. Epaimahaiak, epaia publiko egin eta gero, frogatuko balu saritutako lanak ez duela baldintza horietako bat betetzen, egileak jasotako saria itzuli beharko du.

Era berean, parte-hartzailea erantzule izango da aurkeztutako lanaren ondorioz egile-eskubideak edo jabetza intelektuala urratzeagatik hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazio guztien aurrean, Euskadi Irratia arinduz.

2. Lehiaketan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da 18 urtetik gora izatea eta idazle profesionala ez izatea.
3. Lanen luzera, gehienez 100 hitzekoa izango da, gai librean.
4. Lanak emailaz bidali beharko dira, honako helbide honetara: amarauna@eitb.eus Lanaren egileak bi dokumentu bidali beharko ditu:
 - Batetik, lehiaketara aurkeztuko den kontakizuna PDF formatuan eta izenburuarekin, egilea nor den jakitera eman dezakeen inolako pistarik jarri gabe.
 - Bestetik, lanaren izenburuaz gain, egilearen datuak jasotzen dituen agiria: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta e-posta.
5. Lanak aurkezteko epea **apirilaren 30ean** amaituko da.
6. Finalistak literatur munduarekin lotutako epaimahaikideek aukeratuko dituzte; horien artetik aterako diren txapeldun eta txapeldunordea, berriz, Euskadi

irratiko entzuleek. Azken faserako aukeratutako lanak Amarauna saioan eskainiko dira, esatarien ahotsean, entzuleek bozka ditzaten.

7. Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du uste badu aurkeztutako lanek ez dutela behar adinako kalitaterik.

8. Sariak:

- 1. saria: 600 euro garbi
- 2. saria: 300 euro garbi
- 3. saria: 100 euro garbi

Sariaren zenbatekoa kontzeptu garbian ezartzen da, eta Euskadi Irratiak bere gain hartu beharko du irabazleak saria jasotzearen ondoriozko edozein karga fiskal, atxikipen edo zerga.

9. Parte-hartzaileek doan lagako dizkiote Euskadi irratia aurkeztutako lanen egile eskubideak. Baita erreproduzio, banaketa, eraldaketa eta komunikazio publikoko eskubideak ere, mundu osorako, hirugarrenei lagatzeko eskubidea barne, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako gehieneko eperako.

Edozein kasutan, hemen lagatako eskubideen irismenaren interpretazioari buruzko edozein zalantza edo eztabaidaren aurrean, ulertuko da lagapena ahalik eta zentzurik zabalenean egiten dela, ikus-entzunezko ustiapen integrala ahalbidetzen duen edozein erabilera edo ustiapen modu barne, Euskadi Irratiak edo hark baimendutako edozein hirugarrenek erabil dezakeen edozein modalitate edo funtzionalitate arabera.

10. Finalistek eta saridunek Euskadi irratiko Amarauna saioan parte hartuko dute beraiek idatzitako kontakizun laburren inguruko elkarriketak eskainiz.